



## ALDI BATERAKO LANGILEEN ERREGIMENA

### Arautegia

#### Eusko Legebiltzarreko erregelamendua

#### 28 artikulua

1.- Lokal eta baliabide material eta pertsonalak jarriko ditu Legebiltzarrak legebiltzar-taldeen eskura, beren eginkizunetan jardun dezaten (...)

#### 28.2 artikulua (bigarren paragrafoa)

Legebiltzar-taldeetako teknikari-administrarien kopurua talde bakoitzak Legebiltzarrean duen ordezkariaren arabera izango da. Mahaiak hartu-ko du gai horri buruzko erabakia, Bozeramaileen Batzordeak gaia adostu ondoren.

#### 71 artikulua

1.- Dagokien izendapenaren indarrez, Legebiltzarrarekin zerbitzu profesionalak emateko harreman-lotura duten eta ordainsariak Legebiltzarraren aurrerantzean gain jasotzen dituzten langileek osatuko dute Legebiltzarraren zerbitzuan dagoen langileria.

3.- Konfiantzako langileak kontratatzea aurreikusi ahal izango da, Langileen Estatutuan ezarritakoari lotuta, Mahaiaren edo beste organo batzuen zerbitzuan jarduteko.

#### Langileen estatutua eta Legebiltzarreko administrazioaren araubide juridikoa, 1990eko ekainaren 22koa

#### 13 artikulua

1.- Hauexek dira behin-behineko langileak: ez karrerako funtzionarioentzat, ez lan-itunpeko langile finkoentzat gordeta ez dauden konfiantzako edo aholkularitza berezikiotasun joak izan, eta lanpostu-zerrendetan halakotzat jasota egon, eta aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostuak izendapenez betetzen dituztenak.

2.- Askatasun osoz izendatu eta kendu ahal izango dira behin-behineko langileak eta, nolatan ere, lanpostutik kanpo besterik gabe geldituko dira langileok izendatu zituen agintariak bere kargua uztean.

3.- Lanpostuen zerrendek zehaztuko dituzte behin-behineko langileei gordetako lanpostu-kopurua, lanpostuon zer-nolakoak eta lansariak.

4.- Behin-behineko lanpostuetan lan egitea ez da Funtzio Publikoan sartzeko edo barne-mailetan gora egiteko merezimendu izango.





## **7 bis artikulua Osaera eta izaera**

1. Honako hauek izango dira Eusko Legebiltzarreko behin-behineko langileak:
  - a) Lehendakaritzaren Kabineteko langileak.
  - b) Legebiltzarreko Lehendakariordetzetako eta Idazkaritzetako langileak.
  - c) Legebiltzar-taldeetara eta haien bozeramaileei atxikitako langileak.
2. Bozeramaileei, lehendakariordeei, eta mahaiko eta legebiltzar-taldeetako idazkariei izendatutako behin-behineko postuak laguntzaile deituko dira.
3. Eusko Legebiltzarreko behin-behineko langileei estatutu honetan funtzionarioentzat ezartzen den erregimena aplikatuko zaie, baita haien lan-baldintzak ere, baldin eta llan-baldintza horiek behin-behineko langileen funtzioei kontrajartzen ez bazaizkie.
4. Lanpostuen zerrendan agertuko adira behin-behineko langileei gordetako lanpostuak, lanpostuen izenarekin, baita zein organo edo legebiltzar-taldetara atxikita dauden eta lanpostu haiei dagokien hornidura (18.4 artikuluari jarraiki) ere.
5. Behin-behineko langilea datorren administrazioan edo enpresan aplikatzekokak diren funtzio publikoko eta lan-arloko araudi orokorren ondorioetarako, titulu honetan arautzen diren langileek behin-behineko langileentzat gordetako lanpostu baten egitekoak betetzen dituzte.
6. Interesdunak hala eskatuta, Eusko Legebiltzarrak ordaindu egingo du zerbitzu berezietan ari diren behin-behineko langileei jatorrizko administrazioan dagokien antzinakotasuna
7. Behin-behineko langileek ondoko kasu hauetan utziko dute lanpostua:
  - a) Hura izendatu zuenak hala erabakitzen duenengan, Mahaiari jakinarazi ostean.
  - b) Interesdunak lanpostuari uko egiten dionengan, Mahaiari jakinarazi ostean.
  - c) Automatikoki, hura izendatu zuenak bere egitekoak amaitzen dituenengan. 1.a eta 1.b paragrafoetako kasuetarako soilik.
  - d) Legegintzaldiaren hasieran, Legebiltzarreko Mahaia berria osatu ostean.

## **8 artikulua Legebiltzarreko Lehendakaritzaren kabineteaz**

1.- Legebiltzarreko lehendakariaren agintaritzapean, Lehendakaritzaren Kabineteari dagokio legebiltzarburuak bere eginkizunak egiteko beharrezkoa duen laguntza tekniko eta administratiboa ematea.

2.- Behin-behineko langile izango dira Kabinetako kideak. Lehendakariak berak izendatuko ditu, baita kargutik kendu ere. Horretarako, askatasun osoz eta Legebiltzarreko aurrekontuek ezartzen dituzten mugen arabera jokatu du.





3.- Behar den guztietan, legebiltzarburuak Legebiltzarreko funtzionarioak ere izendatu ahal izango ditu Kabinetearen zerbitzurako. Horrelakoetan, eta izendatze horrek dirauen bitartean, funtzionarioaren lantokia bitarteko langileek bete ahal izango dute. Bestalde, Kabinetearen zerbitzurako izendatutako funtzionarioak eutsiko die Idazkaritza Nagusian zituen egoera eta eskubideei.

4.- Lehendakaritzari dagokio bere Kabinetearen egitura erabakitzea, hau da, Lehendakaritzak erabakikok du zenbat kidek osatzen duten Kabinetea, zer egiteko daukaten eta zein lansari. Egituraren proposamena, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak onartu ostean, Presako Legegintza, Araudi eta Gobernurako Batzordeak onartu beharko du, Legebiltzarraren aurrekontuekin batera onartu ere.

5.- Konfiantzako langileen bateraezintasun-erregimena euren kontratuan adieraziko da. Nolanahi ere, zerbitzuak Legebiltzarrean emateak izango du lehentasuna.

## **9 artikulua Legebiltzarreko Lehendakariordetzetako eta Idazkaritzetako langileak**

Legebiltzarreko Mahiko kideek askatasun osoz izendatu ahal izango dituzte beren lanetan lagunduko dieten pertsonak. Laguntzaile horiei dagokien lansaria Legebiltzarraren aurrekontuak ezarritakoa izango da.

## **9 bis artikulua Legebiltzar-taldeko langileak**

1.- Legebiltzar-taldeetako bozeramaileek askatasun osoz izendatu ahal izango dituzte beren taldeei aholku eta laguntza emango dieten pertsonak, baita kargutik kendu ere.

2.- Legebiltzar-taldeetara behin-behineko langile gisa atxikitako poertsona kopurua eta haien banatzeko irizpideak, bozeramaileek proposatu eta Presako Legegintza, Araudi eta Gobernurako Batzordean onartu behar dira.

3.- Talde Mistoko behin-behineko langileak taldea osatzen dutenen pluraltasun politikoaren arabera atxikiko dira.

Legebiltzarkide batzuek konfiantzako langileak izan ditzakete, beren eginkizunak betetzen lagun diezaieten.

